# **Esan** dio eta **esaten** dio

ARAUAK:

Etorri da, esan dio, haserretu da ... moduko formak txisteetan zein pasadizoen kontaketan (ez elkarrizketan edo deskribapenetan) ekintzak narratzeko erabiltzen dira.

Etortzen da, esaten dio, haserretze da... moduko formak ohiturazko, maiztasunezko ekintzak edo gertaerak adierazteko erabiltzen da.

### *Aukeratu forma zuzena eta bete hutsuneak.*

Agure zahar-zahar bi kai ondoko pasalekuan jesarleku batean daude, eguzki goxotan. Zaharrenak besteari honela (esan/esaten) ................ dio:

- Kerman, arduratuta nago.
- Zergatik, ba?
- Oroimena galtzen ari naiz.
- Eta hori, noiztik?
- Noiztik...ZER? (erantzuten/erantzun) ............... dio lagunak, sudurra uzkurtuz.

Hara zer gertatu zaidan gaur goizean: banindoan ni lasai-lasai kaletik, patxada osoan eta , halako batean, (etorri/etortzen) ................ zait norbait atzetik (eman/ematen) ................ dit lepoko bat –deitu nahian edo_ eta (bueltatu/bueltatzen) ................ naizenean agure zahar bat (ikusi/ikusten) ................ dut, atoan galdera zaparrada bat egiten (hasi/hasten) ................ zaidana. Alaitz okindegikoa ote naizen, Mirenen ahizpa, haren antza handia daukadala, ez dakit zer badakit zer ... Nik modu onean, baina ezetz eta ezetz; hura, berriz, zapuzturik (gelditu/gelditzen) ................ da eta, apur batean pentsatzen gelditu ondoren (galdetu/galdetzen) ................ ditt: Okerreko pertsona bazara, zer zabiltza hemen hizketan, niri denbora galarazten?"

### *Bete hutsuneak aditz forma egokiak erabiliz*

**3** Eroetxean, Pernandok haginetako eskuila darama arrastaka soka luze bati lotuta. Medikuak ......... du, ............ zaio eta ........... dio:

—Zer, txakurra paseatzen zabiltza ala?

Orduan, Pernandok, serio-serio ............. dio medikuari:

—Zer txakur eta zer txakurrondo! Ez al duzu ikusten haginetako eskuila dela?

Medikua pozik ............ da, Pernando hobera doala pentsatuz. ... ....... da, ba, gure Pernando aurrerago eta ........... dio eskuilari:

—Hau eguna, Pintxo! Honi ere sartu diogu ziria!

| |
|---|
| esan |
| galdetu |
| erantzun |
| ikusi |
| joan |
| hurbildu |
| geratu |